



Gaztainondo-Ategi landa eremuko zentro balioanitza inauguratu dute

BERASTEGI ▶ Adinekoentzako eguneko 20 plaza eta etxebizitza babestuetako beste 4 eskainiko ditu ▶ 6



Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berastegiko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Kutxak finantziatu dute zentroa; irudian, besteak beste, Iñaki Amenabar, Esther Larrañaga eta Miguel Agirrezabala. I. TERRADILLOS



Ospakizunak non-nahi, zaindariaren omenez

IRURA-ALDABA ▶ Jaietako egun handia ospatu zuten atzo; gaur, 'play-back' jaialdia eta kontzertu apartak izango dira Iruran ▶ 4

LEITZA ▶


Burujabetza eta demokrazia hizpide

Tomas Urzainki ariko da gaur, Aurreran ▶ 7

TOLOSA ▶

Argazki digitalak eskatu dituzte, ondarea berreskuratzeko

Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak bultzatuta, edonork har dezake parte ▶ 3



'SAN INAZIO'
MEDIKU ZENTROA

R.P.S 401/04

KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarien ondoan) • TOLOSA
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24

GIZARTEA ▶

Tolosako XIX. Gazta Lehiaketa izango da bihar Beotibarren

Lizardi Kultur Elkarteak antolatu du XVI. Juanito Zabalaren Memoriala aurten ere; 09:00etatik 13:00etara izango da lehiaketa, eta hainbat sari banatuko dira

IRATXE ETXEBESTE

Lizardi Kultur Elkarteak antolatuta, Tolosako XIX. Gazta Lehiaketa edota XVI. Juanito Zabalaren Memoriala izango da bihar Beotibar pilotalekuan goizean hasi eta eguerdira bitarte: 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere. Abelgorri Lehiaketarekin batera antolatzen zuten aurreko urteetan ekimena, baina ganaduena bi astez atzeratu dute, eta urriaren 15ean izango da, beraz.

Latxa ardi gazta antzinako eran egiten duten artzain guztiek hartu ahal izango dute parte Tolosako XIX. Gazta Lehiaketan. Horretarako izena eman behar da aurretik —dagoeneko itxita dago izena emateko epea, eta, beraz, eman ez dutenek ez dute txapelketan parte hartzerik izango—, eta bihar bertan, 09:00etatik 10:00etara, gazta Beotibarren aurkeztu.

Antolatzaileen hitzetan, aurkeztutako gaztaren pisuak kilo bat eta bi kilo bitartekoa behar du izan, eta lehiaketara aurkezterakoan egingo dute lehiakideek gaztaren ordainketa: zehazki, 10 euro ordaindu behar dute gaztaren kilo bakoitzeko. Gaztagile bakoitzak gazta bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketara, eta, era berean, gaztagileak artzaina izan beharko du ezinbestean.

Lehiakideek gazta egiteko Osasun Erregistroa izan be-



Bihar izango da Tolosako XIX. Gazta Lehiaketa Beotibar pilotalekuan, 09:00etatik 13:00etara. Argazkian, iazko lehiaketa. HITZA

harko dute, bestalde, Tolosako XIX. Gazta Lehiaketan parte hartu ahal izateko. «Aurkeztutako gazta berak egina izango da», adierazi dute, halaber, Lizardi Kultur Elkarteak kideek.

Epaimahaiak 10:30etik aurrera hartuko du erabakia, eta aldaezina izango da erabaki

hori. Behin epaimahaiak kideek erabakia hartua dutenean hasiko da sari banaketa Beotibar pilotalekuan.

Idiazabal gazta etxeko Kontseilu Erregulatzailerako kide Mari Carmen de Vega, Marta Albisu, Joserra Aguiriano eta Juanjo Martinez de Viñaspre

SARIAK

Bost sari banatuko dituzte antolatzaileek, eta, gainera, sari berezia Tolosaldeko lehen sailkatuarentzat

eta Tolosako jatetxe ezberdinetako ordezkariak —Fronton kafetegi eta jatetxe arduradun Roberto Ruiz, Orue erretegi Angel Oruesagasti, Nicolas etxeko Pedro Ruiz Elizondo eta Casa Julian jatetxe Matias Gorrotxategi— izango dira epaile lanetan ariko direnak. Guztien artean erabaki beharko dute edizio honetako gazta irabazlea zein izan den.

Epaimahaiak kideek hartutako erabakia jakinarazi, eta lehiaketako antolatzaileek sari banaketa egin ostean, Beotibar pilotalekura hurbiltzen diren ikusle guztiek saritu gabeko gaztak dastatu ahal izango dituztela iragarri dute, bestalde, Lizardi Kultur Elkarteak ordezkariak. Bateko eta besteko artzainek egindako gaztak ikusteko parada izateaz gain, jatekoa ere izango dute ikusleek, hortaz, biharkoan.

Sari bikainak

Tolosako XIX. Gazta Lehiaketara aurkeztzen diren parte-hartzaile guztien artean bostek jasoko dute saria. Betiere epaimahaiaren arabera gazta onena aurkeztu duen artzainak 750 euroko diru saria eta garaikurra jasoko ditu; bigarrenak, 360 euro eta garaikurra; hirugarrenak, 240 euro eta garaikurra; laugarrenak, 180 euro eta garaikurra; eta bosgarrenak, 120 euro eta garaikurra. Horrez gain, sari berezia ere izango da eskualdeko lehen sailkatuarentzat: hain zuzen ere, 90 euro eta plaka jasoko ditu Tolosaldeko lehenak oroigarri gisa.

GIZARTEA ▶

Teknologia berrietara gerturatzeko ekimen berria

Merkatariei baliagarri izango zaien gela berezia jarriko dute Kultur Etxean

I. ETXEBESTE

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak ekimen berria jarriko du abian datorren astean, teknologia berriak merkataritzara hurbiltzeko helburuarekin. Hala bada, merkatariei teknologia berrietara gerturatzeko eta zertarako erabiltzen diren ikusteko balioko dien gela berezi bat izango da zabalik urriaren 3an eta 4an, astelehenean eta asteartean, Kultur Etxean, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara.

Merkatariek doan sartu ahal izango dute gela horretara, eta ordenagailuak, balantzak, T.P.V., imprimagailuak, Wi-Fi, P.D.A., scanner-a eta informatikako aplikazioak bezalako tresneriaren eta ekipamenduen funtzionamendua eta erabilgarritasuna ikusteko aukera izango dute gertutik. Gainera, bakoitzari sortzen zaizkion zalan-zak bertan egongo den teknikari batek erantzungo ditu. «Jadanik teknologi berriak beren komertzioetan jarri eta edota jartzekotan dauden merkatarientzat oso aukera ona da», esan du ekimenaren sustatzaileek.

MUSIKA ▶

Lau talde ariko dira gaur eta bihar gauetan Bonberenean

I. ETXEBESTE

Lau taldek jardungo dute asteburu honetan Bonbereneako taula gainean. Gaurkoan, Nuevo Catecismo Catolico eta Basque Country Pharaons taldeen kontzertua izango da, 22:30etik aurrera; eta bihar, berriz, Surfín Kaos eta Panics izango dira kontzertua eskainiko dutenak; bi emanaldi horiek ere ordu berean izango dira.



Urriak 1,
larunbata

Tolosako
Beotibar
Pilotalekuan
9.00 - 13.00

Antolatzaileak:



Banatzaile bat
behar da baserritar
produktuak banatzeko

Lurlan baserritar elkarteak
943 69 20 54

KULTURA ▶

Ondarea berreskuratu etxeko argazki zaharrak digitalizatuz

Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak bultzaturiko ekimena da, XX. mendeko argazkiak Udal artxiboan sartzeko



Juan Bautista Aranzabek utzitako argazki zaharra. 60. hamarkadakoa da, Inauteri batzuetakoa. HITZA

NOELIA LATABURU

Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak ondarea berreskuratzeko jarduerak antolatzen darrai, eta oraingoan «tolosar kopururik handienaren lankidetzak» eskatzen duen ekimenari heldu dio: askok eta askok etxean jasota dituen XX. mendeko familiako argazki bildumetako argazkiak digitalizatzea, hain zuzen ere. «Tolosako herriaren eta herritarren garai honetako historiaren lekukotza eta isla da dira, eta haien deskribape-

na egiten dute». Digitalizatuko dituzten irudiak Tolosako Udal Artxiboaren fondora pasatuko dira, bertan jasota gera daitezkeen, ondorengo belaunaldiek «XX. mendeko tolosarren bizitzaren lekukotza grafikoa edukitzeko». Urriari bertan bulego bat antolatuko dute Kultur Etxean, non bertan egin ahal izango duten digitalizazio prozesua. Bestalde, Fundazioak azpimarratu du argazki zahar horiek jabeen itzuliko zaiela digitalizazio prozesua amaitu bezain laster.

Beste lurraldeekin alderatuz gero, atzerapena izan zen arren, gurean ere argazkigintza dezente zabaldu zen, eta etxe gehienetara heldu zen argazki makina iragan mendeetan. Kamerak, gainera, erabilera ugari zituen, dokumentatzeko eta familiaren bizitzako une esanguratsuak jaso eta gogoratzeko. Eta horrelaxe sortu ziren familietako argazki bildumak. Edozein etxeetan aurkitzen diren artxibo horietan erreportariaren lanak daude: ospakizun, ezkon-

tza, bazkari, bataio, festa, badaia, paisaia... Azken batean, balio handiko materiala. «zer izan ginen ulertzeko eta horren berri izateko».

Fundazioaren esanetan, argazki hauek beharrezkoak dira ondarea berreskuratzeko, eta «beraiekin zerbait egiten ez badugu, hemendik urte batzuetara galduta egongo dira». Batetik, zahartu ahala hondatu egingo direlako eta, bestetik, «zahartze horri pertsona batzuen ardura falta ere erantsi behar zaio», argazkiak gordezterako orduan. Ondorioz, argazki zaharrak sarritan betirako galtzeko arriskuan daude.

Galera horri aurre egiteko, Tolosa 750 Urteurrena Fundazioak deia luzatu nahi izan die Tolosako familia, elkarte, talde, ikastetxe, dendari, enpresa eta, etxe, lantoki edo elkartean jasota dituzten argazkiak digitalizatzen uzteko. Gainera, proiektuan parte hartzen duen pertsona edo talde bakoitzari CD bat emango zaio digitalizatu zaizkion irudiekin.

Publiko guztiari zuzenduriko proiektua da honakoa eta, beraz, edozeinek har dezake parte: «nahikoa da XX. mendean ateratako argazkiak edukitzea eta argazki horiek deskribatzea, esaterako, ohiturak, jantzeko moduak, lana, arkitektura, festak, ospakizunak, ekitaldiak, inguruko paisaiak, Tolosako kalea, etxe barruak, taldeak, gauzak...».

Beraz, «ondarea berreskuratzeko» proiektu honetan parte hartu nahi duten guztiak gaurtik aurrera Tolosako Kultur Etxeko telefono zenbakira (943 67 03 83) dei dezakete bertan izena emateko. Ondoren, Iñigo Royo argazkilaria zuzendutako taldea jarriko da harremanetan parte hartuko dutenekin.

ZINEMA ▶

'Obaba' filma aukeratu dute Oscar sarietarako

Espainia ordezkatzeko du; 'Ninette' eta 'Princesas' ziren beste bi hautagaiak

N. LATABURU

Espainiako Zine akademiak Montxo Armendariz zuzendariaren *Obaba* filma aukeratu du Oskarretarako lehiorako. Fernando Leon de Aranoaren *Princesas* filma eta Jose Luis Garciren *Ninette* ziren beste bi hautagaiak. Inglesez ez diren filmen artean lehiatzeko aukeratu du Espainiako *Obaba*. Hollywoodeko akademiak urtarilaren amaieran erabakiko du *Obaba* Oskarretarako hautagaia izango den edo ez.

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten *Obaba* filma, Bernardo Atxaga idazle asteasuarraren *Obabakoak* liburuan oinarritutakoa, hain zuzen ere. Esku hutsik joan zen ordea, Montxo Armendarizen filma Zinemaldiko 53. ediziotik, ez baitzuen saririk jaso.

Filmaren argumentuan, zinema ikasle batek pertsonaia harrigarri batzuk ezagutuko ditu *Obaba* herrian: irakaslea, Lucas, ingeniari alemaniar bat eta Miguel. Pilar Lopez de Ayala, Juan Diego Botta, Eduardo Fernandez, Peter Lohmeyer, Barbara Lennie, Mercedes Sampietro, Hector Colome, Pepa Lopez eta Txema Blasco aktoreek osatzen dute taldea.

hitza *lagunen txokoa*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

IRURA-ALDABA ▶ JAIK

San Miguel omenduz

Zaindariaren omenez, jaietako egun nagusia ospatu zuten atzo Irurako eta Aldabako herritarrek



Ohiko hamaiketako egin zuten aldatarrek, atzo, Elizondo jatekian. MARTA SAN SEBASTIAN



Irurako dantzari gaztetxoek emanaldia eskaini zuten, atzo, herriko plazan. I. GARCIA

MARTA SAN SEBASTIAN
IMANOL GARCIA

Irurak eta Aldabak egun nagusia ospatu zuten atzo: San Miguel eguna. Meza nagusiarekin hasi zituzten ospakizunak Iruran. Parrokitik ateratzean, prozesioan joan ziren plaza zeharkatuz, eta orduantxe hasi zuen euri pixka bat. Txistulariak eta dantzariak agurrerako prestatu zirenean, baina, euria gelditu egin zen, eta aterpean zeuden ikusleak plazara bildu ziren dantza emanaldia ikustera.

Ikusleei begira agurra egin ondoren, dantzari gaztetxoek arin-arin eta fandagoak dantzatu zituzten, herritarren txalo artean. Ondoren, dantzariak zein ikusleek Udalak prestatutako hamaiketako hartu zuten, Loidisaletxeren eta Zeberrioren bertsoak entzuz. Iruran San Miguel egunean dantzak du protagonismoa, eta arratsaldean, irurarrak ez ezik, inguruko herrietako dantzariak ere parte hartu zuten emanaldian.

Aldaban, goizeko lehen ekitaldia ere meza nagusia izan zen, eta ondorengo hamaiketako aldatar dezente inguratu ziren; Tolosako alkatea ere bertan izan zen. Hain zuzen ere, 50 lagun inguru bildu ziren Elizondo jatekian eguerdiko salda beroa hartzera. Iluntzean ere afari herrikoia izan zuten herritarrek bertako jatekian. Ondoren, trikitixa, bertso eta txiste saioak gozatu zuten Joanito Mendizabal eta Joxe Ramon Aldasoro txiste kontalariak. Barre algaraka bukatu zituzten, beraz, aldatarrek Mikel Goiaingeruaren jaiak aurten.

EGITARAUA ▶ GAUR

IRURA

19:00. Kalejira buruhandi eta erraldoekin plazatik aterata.

19:30. Txistor-jatea Xare Elkartearen aurrean.

22:30. *Play-back* jaialdia frontoian.

00:15. A Matraca Perversa eta Banda Basotti taldeak, doan, plazan.



Banda Basotti. HITZA

Joxean

- iturgintza
- aire egokitua
- inst. industrialak
- berokuntza
- gasa

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.:656416808

Carpintería ATARI, S.L.
AROTEGIA

Arotzegi mekanikoa. Obrak eta berrikuntzak. Eskalera eta altzariak neurritan. Exhebitzetako eta likal komertzialetarako arotzategia.

E-maila: catari@euskalnet.net

Ibaiondo Industriagunea, 7 • 20271 IRURA • Telf.: 943 69 01 40 - Faxa: 943 69 34 29

Kontzertu berezia

Iruran jaiak jarraitzen dute, eta gaurkoan festetako kontzertu bereziena izango da, doan, gainera. Banda Basotti talde italiar ezaguna Irurako plazan ariko da bere musika eskainiz. Euskal Herrian kontzertu batzuk emango dituzte zenbait hiriburuetan, eta Jai Batzordeak, taldeak zeukan egun librea aprobetxatuz, herrian jotzeko kontratu du. Italiarren aurretik, A Matraca Perversa talde galiziarren emanaldia izango da. Kontzertua baino lehen, beste ekitaldi arrakastatsu bat izango da: *play-back* jaialdia. Herritarrek prestatutako emanaldiak ikusi eta entzuteko aukera izango da bertan.

GAZTERIAREN SARIA
PREMIO DE LA JUVENTUD



DONOSTIAREN NAZIOARTEKO ZINEALDIA
FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE SAN SEBASTIAN

Euskaraz (subt. castellano)

Bilbon Renoir Gasteizen Guridi Donostian Principe eta Antiguo Berri Eibarren Unzaga Basaurin Bilbondo Iruñean Baiona Irunen Oscar Andoainen Bastero

Castellano (doblado)

Bilbao Multis Barakaldo Max Ocio Vitoria Yelmo Cordovilla Morea

Aupa Etxebeste!

"...Gu baño hobeto bizi dana putakume galanta!" Patrizio Etxebeste

"...Un hombre sin dinero es un cadáver andante!" Luziano Etxebeste



ALEGIA ▶

Astelehenean hasiko dira euskara klaseak

Alegiako Kultur Etxean euskara ikastaroak hastear dira. Datorren astelehenean, urriak 3, emango diete hasiera eskolei, eta urte osoa iraungo dute. Bi zailltasun maila eskaintzen dira: alde batetik, zerotik hasten diren ikasleei zuzendua eta, bestetik, 3. urratsean hastera doazentzat. Beraz, bi talde sortuko dira, eta ikasle talde bakoitzak asteen bitan izango ditu eskolak, 20:00etan hasi eta 22:00ak arte. »

ALEGIA ▶

Abesbatzetan parte hartzeko deialdia

Dagoeneko hasi dituzte aurtengo ikasturteko lehendabiziko entseguak Alegiako Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek. Hala ere, taldean parte hartu nahi duen edonor animatu nahi dute abesbatera. Txintxarri abesbatzak asteartetan eta ostiraletan egin ohi ditu entseguak, 21:00etatik aurrera. Garbiñe Orbegozo buru dutela. Txintxarri Txiki taldeak, aldiz, Idoia Iraola tolosarra du zuzendari, eta haurrentzako erakargarria den errepertorioa lantzen du. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak kantatzea gustuko duten pertsona guztiak, helduak, gazteak eta haurrak, animatu nahi ditu abesbatzetan parte hartzera. Horretarako, interesa dutenek ondoko telefono zenbakietara deitu behar dute: 652 76 90 49 edota 262 06 72 93.

BIDEGOIAN ▶

Diapositiba bilduma Josu Iztuetarekin

Bidegoianen XVI. Kultur Astea egiten ari dira egunotan. Prestatu duten egitarauaren barne, gaur, 21:00etan, *100 kilometro lurraren mugan izeneko* diapositiba bilduma proiektatuko du Josu Iztueta tolosarrak. Diapositibez gain, hitzaldia ere eskainiko du bidaiari eta abenturazaleak. Irudien bitartez, hain ezaguna egin den Nairobitarra autobusarekin bizitako espedizioen nondik norakoak azalduko ditu gaur Josu Iztuetak.

ASTEASU ▶ KULTURA

Dantza, musika eta bertsoak uztarturik

Xukan taldearen 'Iturrian zer dago' emanaldia, gaur gauetan frontoian

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak antolatuta, Xukan taldearen *Iturrian zer dago* emanaldia izango da ikusgai gaur, 22:00etan, herriko frontoian; sarrera doakoa izango da guztientzat. Dantza, trikitixa eta bertsoak uztartuz dituen ikuskizuna da *Iturrian zer dago*: hala elementu bakoitzaren bakarkako emanaldiak nola hiruren arteko nahasketak antzeztuko dituzte taula gainean, aintzinako labadero batean gertatzen diren gorabeherak, hain zuzen. Eszenatoki horretan egingo dute topo arropak garbitzera joan diren ama-alabek eta baserititik, azokara bidean, «muturra berotu ondoren ur tragoska bat egitera doazen» aita-

semeek, Xukan-eko kideek azaldu dutenez. Handik aurrera egingo du bidea, betiere bertsolarien bat-batekotasuna gidari, laukotearen istorioak; bi taldeen arteko sedukzioa eta maitasun jolasak, tarteko.

Bertsolariak duten bat-batekotasunerako trebeziak garrantzi berezia izango du *Iturrian zer dago* ikuskizunean: bat-batean gauzak eta gertarako modu ezberdinerako kontatzeak «gaitasun horrek ahalbidetzen baitu, hain zuzen ere, istorioa beti berdina hasi eta berdina amaitu ahal izatean».

Bestalde, euskal dantzako ohiko fandangoei eta arin-arinei koreografia berriak eta eritimo ezagunak jarriko dizkiete Xukan taldeko dantzariak: tangoa, baltsa...

Bat Garajea
Ondo pasa lururako jaietan!
Telf.: 943692205 • Faxes: 943693771 • Ibaiondo Indus. 11 • 20271 IRURUA

www.sala31.com **irailak 30 ostirala**
Ken zazpi + Gari
Irekiera 22:00etan
Aurretik 10 € • Lehiatutako 15 €

IPUIN HARRIGARRIAK

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

Ipuin harrigarriak 1
Kastillopranko
Biribil-biribilak
Ipuin harrigarriak 2
Dar-dar
Ondo eginaren ordaina
Ipuin harrigarriak 3
Gatza ala erregea
Biziak ezagutzeko hila
Ipuin harrigarriak 4
Zapatari asmatzailea
Zerraldoan bizirik
Ipuin harrigarriak 5
Ikazkina eta heriotza
Besterik ez bezalako kapela
Ipuin harrigarriak 6
Estudiante Tonto
Ezkonberriak
Ipuin harrigarriak 7
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki
Zeruko berriak
Ipuin harrigarriak 8
Pepetxu eta Popatxu
Kardulatzeta salatari

Urriaren 8tik aurrera
ASTE BURUETAN

berria
+ 3 €

Laguntzaileak:
Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzariaren 16. Legealdia
Bizkaia

BERASTEGI ▶ GIZARTEA

Gaztainondo-Ategi zabalik

Landa eremuko zentro balioaniztunak eguneko 20 plaza eta etxebizitza babestuetako beste 4 eskainiko ditu

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo goizean egin zuten Berastegiko Gaztainondo-Ategi landa eremuko zentro balioaniztun berriaren inaugurazioa, eta bertan izan ziren, besteak beste, Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatua eta Miguel Agirrezabala Berastegiko alkatea.

Zentro honetan eguneko laguntza eskainiko diete adineko pertsona ezinduei, eta etxebizitza babestuetako laguntza, berriaz, adineko pertsona autonomoei. Gipuzkoako Foru Aldundia legealdi honetan sustatzen ari den landa eremuko zentro balioaniztunen sarearen barruan dago zentroa, hau da, Hurbiltzen programaren baitan. 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietara bideraturiko programa da hori. Gipuzkoaren kasuan, 48 udalerrri daude landa eremuan —udalerrri guztien erdia baino gehiago— eta 33.800 bizilagun inguru bizi dira —herrialdeko biztanle guztien % 4,95—. Adinekoei eta ezinduei dago zuzendua.

Berastegiko zentrorako 1.099.645 euro erabili dira. Horietatik, 322.610,30 euro, hau da, %29 Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako departamentuak jarri ditu inbertsio planen bitartez, eta gainera Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Kutxak ordaindu dute. Atzokoan azaldu zutenaren arabera, aurki Aldundiak eta Udalak lankidetzan hitzarmen bat sinatuko dute eta Foru Aldundiak urtero 30.000 euroko ekarpen ekonomiko bat egiteko konpromisoa hartuko du landa eremuko zentro balioaniztun bakoitza mantentzeko. Babestuetako etxebizitza, be-

rriz, Udalak finantzatu ditu, adineko autonomoei zuzendutako baliabide bat baita.

«Bizi kalitatea hobetzeko»

Esther Larrañaga Foru diputatua adierazi zuenez, «zentro balioaniztunek landa eremuetan gizarte zerbitzuen arloan sortutako beharrei erantzuten diete». Halaber, herri txikiek zahartze tasa handiagoak dituztela, eta programa honekin helduak eta ezinduek euren herrietan senitartekoekin batera bizitzea lortu nahi dela azaldu zuen, horrela «bizi kalitatea» hobetuko baita. Gainera, «zentro hauetan gizarte baliabide ezberdinak sartzen dira, eta horiekin batera kultura, aisialdi eta osasun zerbitzu batzuk ere bai; horregatik uste dugu horixe dela Berastegi bezalako herri batentzako erudirik onena», gehitu zuen.

Ireki berri den zentroak eguneko 20 plaza ditu eta 4 babestuetako etxebizitzetan. Behe solairuaren eskuinaldean atondoa dago, eta ezkerrean gizarte zentroa, sukalde, jangela eta egongelarekin. Eguneko zentroa lehenengo solairuan dago, baita bainu geriatrikoa eta mediku kontsulta ere. Hiru gune berezitu ditu: jarduera gunea, atsedeen gunea eta birgaitze fisikorako gunea. Azkenik, teiatupean hiru etxebizitza babestu daude, bi bikoitzak eta bat banakakoa.

Bestalde, Esther Larrañagak adierazi zuenez, «legealdi honetan zentro balioaniztun gehiago zabaltzea da Gizarte Politikarako departamentuaren asmoa; Tolosaldean, Berastegiko zentroa bezala, aurki Gaztelukoa abian jarriko dugu».



Atzo goizean Gaztainondo-Ategi zentroaren inaugurazio ekitaldiko une bat. Arkupean, Miguel Agirrezabala Berastegiko alkatea eta Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatua. I. TERRADILLOS

MIGUEL AGIRREZABALA ▶ BERASTEGIKO ALKATEA

«Gurea bezalako herri batentzat beharrezkoa da horrelako zentro bat»

Atzo egindako inaugurazio ekitaldian Miguel Agirrezabala Berastegiko alkateak esker hitzak izan zituen Gaztainondo-Ategi zentroa posible izan dadin laguntza eman dutenei.

Zein izango dira zentro berriari erriari egingo dizkion ekarpenak?

Berastegi bezalako herri batean beharrezkoa zela horrelako zentro bat iruditzen zait. Bertan bizi diren helduentzako eta ezinduentzako oso garrantzitsua izango da. Izan ere, betidanik ohituta dauden herri giroa utzi beharrik ez dute izango aurrerantzean, eta gainera etxekoangandik gertu egoteko aukera eskaintzen dute. Hori onada zentroan egon behar



I. TERRADILLOS

duenarentzat nahiz familierentzat, bertatik bertara baitute senidea bisitatzeko. Gainera, uneoro ondo zainduta da goenaren segurtasuna dute.

Orain arte nola moldatzen ziren?

Tolosako eta Villabonako zentroetara joan beharra izaten zuten, eta distantzia handiegia dirala horiek helduentzat.

Herriarrentzako soilik izango al da?

Gainerakoek ere erabili ahal izango dute, hala ere, zentro hauen helburua etxetik gertu egoten edo bizitzan jarraitzea da; beraz, horren arabera izango da.

Noiz erabili ahal izango da?

Obrak amaitu dira, eta orain martxan jarri ahal izateko langileak noren eskutik joango diren zehaztea geratzen zaigu, baina hori segituan izatea espero dugu. ◀

- ▶ hilberriak
- ▶ urturenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ARESO ▶

Alustizak
Nazioartekoan
parte hartu du
Argi-rekin

Jauregiren Bixkor-ek irabazi du txapela; elkartasuna nagusi Oñatiko festa giroan

J. ASTIBIA

Lehenengo igandean burutu zen, Oñatin, XLVI. Nazioarteko Artzain Txakur Lehiaketan, Antonio Alustiza areoarrak parte hartu zuen Argi-rekin; eta, saririk jaso ez zuten arren, Euskal Herriatik ez ezik, Kataluniatik, Kantabriatik eta Aragoitik (Espainia) eta Frantziatik etorritako beste hainbat artzainekin batera lehiatu eta adiskidantza eguna sari modura irabazi zuen, besteen moduan.

Aurtengo edizioa Jauregik irabazi zuen, Bixkor-ekin; 2. eta 3. sariak Mendigurenek jaso zituen, iazko irabazleak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarzan autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA

Zein dira
handienak?
Hortxe-hortxe!

J. Astibia ▶ Udazkena uzta biltzeko tenorea da, mendian onttoak, sarri gaztainak, eta baratza eta alorretan, artoari burutxe egin eta banabarrak biltzen hasterako, patata ateratzen da, berandukoa. Eta, hara, noizean behin, urtebeteko haurraren ondoan ageri direnak bezalako *buruak* ateratzen dira: handienak, kilo eta erdi ditu, besteak kilo eta hirurehun gramo, *tti-kienak* kilo eta berrehun. Ederrek aleak! Patata hauek bildu dituen nekazaria badagoke lasai negua noiz etorriko! J. ASTIBIA



LEITZA ▶ GIZARTEA

Burujabetza,
demokraziara
bidea egiteko

Ondorio horretara iritsi eta, besteak beste, horixe azalduko du Urzainkik



Tomas Urzainki lehenengo ibeltzean ere etorri zen Leitza. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Gaur iluntzean, 20:30ean, eta Aurrera elkartearen, *Soberanía o subordinación* (Burujabetza ala menpekotasuna) bere azkez liburua aurkeztuko du Tomas Urzainki Minak, Nabarralde elkartearen kide eta lehendakariak.

Historialariak Nafarroako Estatuari buruz hainbat eta hainbat entsegu-liburu idatzi ditu. Honetakoan azken bi mendeetako 8 agiri zehatzetan oinarrituta, «gizartea benetan demokratikoa izanen bada, erabakitze ahalmena izan behar du, hots, burujabe izan

behar duelako» ondorioa atera du. Horren guztiaren nondik norakoak azalduko ditu.

Jakitera eman dutenez, bestalde, ekitaldi publiko horren aurretik, Nabarralde elkartearen urteroko biltzarra burutuko dute, eta herriko bazkideak bereziki gonbidatu dituzte.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean lau orduz lan egiteko. Deitu 675 70 11 78 telefono zenbakira.

Sukaldaria eta zerbitzaria.

Asteburuetarako eta oporren ordezkapenak egiteko sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. Deitu 943 691 933 telefono zenbakira.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Ederki doa aurrera
Aurrera futbol taldea

Aurreko asteburuan irabazi egin zion Aralar Mendiri; oraingoan, Gazte Berriak-ekin du

J. ASTIBIA

Gustura ari dira lanean Aurrerakoak: aurreneko partiduan pasara dezentekoa hartu bazuten ere —etxean 3 eta 4 galdutuz Aibaresen aurka hartan—, geroztik indarrez ari dira lanean, emaitza onak lortuz eta Ligako martxa hartuz.

Horren isla azken bi jardunaldietan egindakoa: kasedarrei, han, 7 gol sartu zizkieten; eta pasa berri den igande honetan, hemen, Aralar Mendiri irabazi, taulari beste hiru puntutik gehiago erantsiz.

Azken partidu horretan 2 eta Oko emaitza eskuratu zuten leitzarrek Arkixikilen. Aparteko jokorik gabeko lehen zatia izan zen, baina bigarreneko joku moidea aldatu eta zenbait jokalaririk aldatuta egin ondoren, fruituak jaso zituzten, golak azken 20 minututan egin bazituzten ere: aurrenekoa Hegoi Bengoetxeak sartu zuen, bi partidutan bi egin ditu jada; bigarrena, partidua bukatzeko hiru minutu falta zirela, Garikoitz Etxega-

raiek bota zuen sareetara. Aurrerentzat garaipena erabat ziurtatuz. Denboraldi honetan, aurreneko partidua zuen jokalaririk honek igandekoa.

Emaitza honekin «konforme» ageri ziren taldeko arduradunak: «Batez ere 2. zatian oso ongi aritu gara, jokaldi on asko egin, eta aurkariarekiko alde handiarekin», zioten pozik.

«Datorren larunbateko izanen da benetako testa, ordea», baieztatu zuten. Antsoaingo Gazte Berriak-en aurka jokatu dutena aitatzuz: «Taldea indartsua da, lehenik ezagutzen ditugu, eta gerorako oso garrantzitsua izanen da hauekin egiten duguna. Irabazita, taldeak sinistatuko luke 'ongi gaudela', eta kemena emanen liguken». Larunbatean, 15:30ean dute hitzordua, Antsoainen.

▶ TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Eztabaida. Gure webguneko eztabaidetan iritzia emateko aukera duzu. Zer iruditzen zaizu herriko gazteek Ateka Beltza etxea erabiltzen hasi izana? da, besteak beste, proposaturiko gaietako bat. Idatz ezazu honen inguruan duzun iritzia!



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 30a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO
EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

15

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

BERTSOLARITZA

Asteasu. *Iturrin zer dago?* emanaldia. Aitor Mendiluze eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin eta Xukan dantza taldearekin. 22:00etan, frontoian. Sarrera doan.

DEIALDIAK

Leitza. Altsasun urriaren 16an egingo den Nafarroa Oinezen ordu batzuetan laguntzeko izena eman daiteke Karrape Irratian (948 610914) edo IKA euskaltegian (948 610776).

Tolosaldea. Igandearen Leintz bailaran egingo den Kilometroak 05 festara joateko autobusak antolatuta ditu Galtzaundiak. Izen-ematea, egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6), gaur arte, 17:00etatik 20:00etara. Ibarra GAZTE Asanbladak ere antolatuta du autobusa: izena Zubiaurre eta Karlatz tabernetan eman daiteke, 5 eurotan Ibarra ikasle eta langabetuek, eta 8 euro gainerakoek.

Tolosaldea eta Leitzaldea. Etxerat-ek deitutako elkarretaratzuek, euskal preso politikoen alde. Tolosan, 19:30ean, Trianguloan; Ibarra, ordu berean, herri sarreran; Alegian eta Amezketan, 19:30ean, ohiko lekuetan; Lizartzan, Anoetan,

Ikaztegiatan, Villabonan, Zizurkilen, Asteasun eta Adunan, 20:00etan, ohiko lekuetan; Leitza, ordu berean, Lopeneko atarian.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Bidegoian. 1.000 kilometro lurraren mugan. Nairobiarren espedizioen diapositiba bilduma emanaldia, Josu Iztuetaren eskutik. 21:00etan. Kultur Astearren baitan.

KIROLAK

GAUR

Areto futbola.

▶ Euomar-Eskolapioak (2. Maila A). 21:00, Antoniano.
▶ Tecnum B-Denk taberna (3. Maila A). 21:30, Donostia.
▶ Laskorain-Lugaritz (3. Maila A). 21:00, Usabal.
▶ Tinta Billabona-Altzakoak (Emakumezkoen Senior Maila). 20:45, Olaederra.

Pala.

▶ Oaingu 3-Kuku (2. Maila). 18:00, Beti Alai.
▶ Kuku-Oiangu 1 (1. Maila). 18:00, Beti Alai.

Pilota.

▶ Ataun-Aurrera Saiaz (Kadeteak). 18:00, Ataun.

▶ Añorga 3-Zazpi Itturi 2 (Nagusien 1. Maila). 19:00, Añorga.

▶ Lazkao 2-Zazpi Itturri (Nagusien 2. Maila). 19:15, Lazkao.

▶ Eskoriatza-Behar Zana (Kadeteen 3. Maila). 19:30, Eskoriatza.

▶ Bergara-Aurrera Saiaz (Kadeteen 2. Maila). 19:30, Bergara.

▶ Txapagain-Zazpi Itturri (Gazteen Maila). 20:15, Beti Alai.

▶ Loiolatarra-Aurrera Saiaz (Nagusien 2. Maila). 20:45, Loiola.

▶ Zazpi Itturri-Eskoriatza (Kadeteen 1. Maila). 21:00, Amezketza.

▶ Zazpi Itturri 3-Lazako (Jubenilen 1. Maila). 21:00, Amezketza.

▶ Zazpi Itturri-Arrasateko (Nagusien 3. Maila). 21:00, Amezketza.

▶ Behar Zana-Hernani (Nagusien 2. Maila). 21:00, Amasa.

▶ Anaitasuna-Zazpi Itturri (Jubenilen 1. Maila). 21:15, Azkoitia.

▶ Anaitasuna-Zazpi Itturri (Nagusien Maila). 21:15, Azkoitia.

Zesta-punta.

▶ Beotibar 2-Donostia Jai Alai 1 (Kadeteak). 19:30, Santa Luzia.

▶ Beotibar 3-Gazteleku 1 (Nagusiak). 19:30, Santa Luzia.

▶ Gazteleku 3-Beotibar 1 (Nagusiak). 20:15, Arrate-Andoain.

BIHAR

Areto futbola.

▶ Hegoalde-Diamante Rioja (Emakumezkoen Ohorezko Maila). 18:00, Berazubi.

▶ Arnedo-Ibarra (Nazional Maila A). 19:30ean, Arnedo.

▶ GSI Bilbao UPV-Laskorain (Nazional Maila B). 16:00, San Ignacio.

▶ Transportes Lakuntza-Oiartzun (1. Maila A). 18:30, Olaederra.

▶ Plaza Berri Sport-Cash Converters (2. Maila A). Zubiaurre.

▶ Larramendi-Anoetako Gazte Asanblada (3. Maila B). 16:00, Illarramendi.

▶ Idiazabal-Laskorain (Emakumezkoen Senior Maila). 16:00, Zelaia.

Futbola.

▶ Tolosa-San Pedro (3. Maila). 16:30, Berazubi.

▶ Gazte Berriak-Aurrera (Lurraldekako 1. Maila). 15:30, Ansoain.

▶ Ostadar-Danena (Lurraldekako 1. Maila). 17:00, Michelin-Lasarte.

▶ Tolosa B-Munibe (Lurraldekako 2. Maila). 18:00, Usabal.

▶ Billabona-Hernani (Jubenilen 1. Maila). 17:00, Arratzain.

▶ Orioko-Intxurre (Jubenilen 1. Maila). 17:00, Antilla-Orio.

Futbol 7.

▶ Caravanas Tolosa-Mendi Kafe Rock (3. Maila D). 19:30, Andoain 2.

Pilota.

▶ Intza-Aurrera Saiaz

(Nagusien 2. Maila). 10:45, Mitxelín-Lasarte.

▶ Urnieta-Aurrera Saiaz (Jubenilen Maila). 16:00, Urnieta.

Zesta-punta.

▶ Zumaia 3-Beotibar 2 (Nagusiak). 16:00, Carmelo Balda-Donostia.

ETZI

Futbola.

▶ Romo-Tolosa (Jubenilen Nazional Maila). 11:00, Getxo.

▶ Ekintza-Tolosa (Jubenilen 1. Maila). 11:00, Berio.

Futbol 7.

▶ Pub Oasis-Ibarra GAZTE Asanblada (1. Maila A). 10:30, Beasain 1.

▶ Kroms-Jalgí Kafe Antzokia. (1. Maila A). 09:00, Zubieta 2.

MUSIKA

Tolosa. Nuevo Catecismo Catolico eta Basque Country Pharaons taldeen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarrea, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Txolarre (107,5; 101.2 FM)

11:00. *Tolosaldeko Ahotsa*, 14:00ak arte. Eguraldia Jose Landarekin, HITZAren errepaso, oharrak...

11:45. Gazte Bilgunearen presanturakoa. 12:00. Kilometroak 2005. 12:20. Asteburuko agenda. 12:30. Tolosaldeko Etxerat-eko ordezkariekin solasean.

13:00. *Ezikutako koloreak* irrati nobela. 13:15. Lehiaketa eta disko eskainiak. 22:00-23:00. *Arkako Show* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Aritz Aierza (Tolosa).
Gaur 3 urte. Zorionak Asier eta gurasoen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



Gaur, ostirala,
botoa emateko
azken eguna

hitza lehiaketa

BOTOA EMATEKO

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

Telefonoz: 943 65 56 95

Botuaz gain, datu pertsonalak behar ditugu.

Irabazleak, asteburuan argitaratuko dira
Argazkiak www.tolosaldeko hitza.info
webgunean ikus ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitza Arakindegia jatetxean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismatikoak.